

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21 koa. Onespena ematea Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrei

Diputatu Nagusiak uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ditu 2019-2023 legealdirako, eta ezarri du Diputatu Nagusiaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak honako hauek direla, besteak beste: berdintasunerako politika, immigrazio politika, lankidetzak, giza eskubideak, Arabako Lurralde Historikoa kanpoan ezagutaraztea eta euskara politikak Arabako Lurralde Historikoan.

Arlo horietako batzuk sortu berriak dira, eta beste batzuk, beste Sail batzuek esleituta ziztuzten. Horrela, antolaketan ondoz ondoko zenbait berregituraketa egon direnez, gaur egun Diputatu Nagusiaren Sailean dauden dirulaguntza lerroak sailek oinarri orokorrak onartzeko egindako foru dekretuetan oinarritzen dira. Zehazki, Euskara Zerbitzuaren dirulaguntza prozedurek jadanik indargabetuta zegoen 55/2015 Foru Dekretuari, urriaren 6ko Foru Gobernu Kontseiluarenari, jarraitzen zioten. Idazkaritza Tekniko eta Herritarren Arretarako Zerbitzuak kudeatutako giza eskubideen deialdia, martxoaren 28ko 18/2017 Foru Dekretuan, Gobernu Kontseiluarenean, oinarritzen da. Bestalde, energia pobretasun arloko dirulaguntzen deialdia, azaroaren 19ko 58/2018 Foru Dekretuan, Gobernu Kontseiluarenean. Azkenik, Berdintasun, Lankidetzak eta Kultura artekotasan Zerbitzuak gaur egun kudeatzen dituen dirulaguntzen deialdia, maiatzaren 22ko 30/2012 Dekretuak, Gobernu Kontseiluarenak, ezarritakoaren babespean egiten da. Dekretu horrek, Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenerako Zuzendaritzak norgehiagoka araubidean ematen dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak onartzen ditu.

Halaber, Diputatu Nagusiaren Saileko dirulaguntzetarako oinarri orokorrak onartzeko dira eguneratu behar direlako, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, ekarritako izapidetze elektronikoko eskaera berrietara egokituz.

Horrenbestez, beste foru dekretu bat onartu behar da, Diputatu Nagusiaren Sailaren eskumenen esparruan, norgehiagoka araubidean ematen diren dirulaguntzetan aplikatzeko oinarri orokorrak arautzeko, berariaz egon daitezkeen araubideei kalterik egin gabe.

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, bere 16. artikuluan Gobernu Kontseiluari ematen dio Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen eremuan dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko eskumena.

Xedapen oroko hau bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen arautze egokiaren printzipioekin (foru dekretu horren bidez onarpena eman zitzaizen xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei).

Halaber, oinarri arautzaile orokor hauek Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeari, emakumezko eta gizonezkoen berdintasunarenari, eta martxoaren 22ko 3/2007 Legeari, emakumezko eta gizonezkoen arteko benetako berdintasunarenari, lotzen zaizkie; izan ere, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasun printzipioa betetzen da eta sexu arrazoiengatiko diskriminazio guztiak berariaz debekatzen dira.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Hori dela bide, Arabako diputatu nagusiak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehena. Diputatu Nagusiaren Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorrak, dekretu honen eranskinean ageri direnak, onartzea, nahiz eta, salbuespenez, arau espezifikoak ere egon daitezkeen.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadila agintzea.

Xedapen indargabetzaile. Indargabetzea dekretu hauek: martxoaren 28ko Foru Dekretua, Foru Gobernu Kontseiluarena, Diputatu Nagusiaren Sailak giza eskubideen eta memoria historikoaren arloan norgehiagoka araubidean emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen; azaroaren 19ko 58/2018 Foru Dekretua, Foru Gobernu Kontseiluarena, baliabide ekonomiko gutxi dituzten pentsiodunen gastu energetikoa finantzatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarriak eta oinarri orokor arautzaileak, lehia librean, onartzen dituen, eta maiatzaren 22ko 30/2012 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenerako Zuzendaritzak ematen dituen dirulaguntzak, norgehiagoka araubidean, arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen.

Xedapen iragankorra. Oinarri orokor hauek indarrean sartu aurretik, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2020ko ekitaldian norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko hasitako prozeduretan, maiatzaren 22ko 30/2012 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, aplikatuko da, amaitu arte.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria

NEREA MELGOSA VEGA

ERANSKINA**Diputatu Nagusiaren Sailaren oinarri orokorrak, dirulaguntzak
NORGEHIAGOKA araubidean ematea arautzen dutenak****1. Xedea eta aplikazio eremua**

1. Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez (norgehiagoka edo lehia libre) emango dituen dirulaguntzak arautuko dituen oinarri orokorrak ezartzen ditu dekretu honek. Dirulaguntzok aurrekontu kredituen kontura ordainduko dira eta sailaren eskumen esparruko jarduerak izango dituzte xede.

2. Honako dirulaguntza ildoak aplikatuko dira:

– Euskararen bidez erabiltzeko eta sozializatzeko programak, tokiko erakundeek sustatutakoak.

– Euskararen bidez erabiltzeko eta sozializatzeko programak, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta kirol federazioek sustatutakoak.

– Euskarazko komunikabideak, tokikoak edo eskualdeetakoak.

– Helduak euskalduntzea.

– Lekuz aldatutako gelak.

– Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko programak edota jarduerak, tokiko erakundeek sustatutakoak.

– Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko programak edota jarduerak, irabazi asmorik gabeko erakundeek sustatutakoak.

– Sentsibilizatzeko eta kultura arteko bizikidetzarako programak edota jarduerak, tokiko erakundeek sustatutakoak.

– Sentsibilizatzeko eta kultura arteko bizikidetzarako programak edota jarduerak, irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatutakoak.

– Garatzeko bidean diren herrialdeetan gizarte eta ekonomia garapenerako lankidetzaren proiektuak.

– Nazioarteko elkartasunaren aldeko sentsibilizazio ekintzak, eta gizarte aldaketarako hezkuntza jarduerak.

– Giza eskubideen eta memoria historikoaren arloko programak edota jarduerak.

– Diruz lagun daitezkeen beste edozein lerro, Diputatu Nagusiaren Sailari emandako eginkizunekin loturiko programa edo jarduerari buruzkoak, oinarri arautzaile berezirik eskatzen ez dutenak.

3. Ez dira aplikatuko:

a) Diputatu Nagusiaren Sailak emandako sarietan.

b) Arau berezien oinarri arautzaileen ebazpenek jasotako dirulaguntzak, norgehiagoka bidez ematekoak.

4. Deialdiak hauek jasoko ditu:

a. Zein xedapenetan jasotzen diren oinarri arautzaileak eta ALHAOren zein aletan argitaratu diren.

b. Diru-laguntza egozten zaien aurrekontu-kredituak, banakako zenbatekoa edo, halakorik ezean, horiek zehazteko irizpideak, kreditu erabilgarrien barruan deitutako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa eta, hala badagokio, zenbateko gehigarria.

c. Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, baita pertsona onuradunek, hala badagokie, jarri beharko dituzten bermeen araubidea ere.

d. Erakunde onuradunen xedea, helburua, baldintzak eta betebeharrak.

Deialdiak, hala badagokio, erakunde onuradunek zer hizkuntz betebeharrak bete behar dituzten zehaztuko du, bi hizkuntza ofizialei tratamendu egokia ematen zaiela bermatzeko. Nolanahi ere, diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia haurrentzat edo gazteentzat bada, euskaraz zein gaztelaniaz harremanetan jartzeko aukera izango dutela bermatuko zaie onuradunei.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1.c). artikuluan, emakume eta gizonen berdintasunerakoan (Emakume eta gizonen berdintasunerako Legea aurrerantzean), ezarritakoaren arabera, ez da diruz lagunduko sexuagatik baztertzen duen inolako jarduerarik. Halaber, legezko testu horrekin bat, erakunde eskatzaileek genero ikuspegia kontuan hartu beharko dute diruz lagundutako proiektuan. Hauxe da genero-ikuspegia: "emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea". Deialdi bakoitzean zehaztuko dira erakunde onuradunek artikuluhoni jarraiki bete beharko dituzten baldintza zehatzak.

Dena den, dirulaguntza jasotzen duen erakundeak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatuko du egindako agiri guztietan. Lege horren babespean, argitaratzen diren irudietan pertsonak ez dira giza duintasun handiagoz edo txikiagoz agertuko euren sexuaren arabera, ez dira sexu objektu soil gisa agertuko eta ez da erabiliko estereotipo sexistarik eta genero rol eta identitateen dibertsifikazio sexuala bultzatuko da.

e. Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emango direla, edo, salbuespenez norgehiagokarik gabe ematen badira, salbuespen hori zergatik egingo den.

f. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatze modua.

Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an ezarritako 4/2005 Legearen, emakume eta gizonen berdintasunerakoaren, 20. artikuluan arabera, dagokion kasuetan, dirulaguntzen onuradunek bete behar dituzten baldintzen artean, emakume eta gizonen berdintasunerako politikak edo jarduketak garatzen duten esperientzia baloratzen dituztenak barne hartu ahalko dira.

g. Prozedura izapidetzeko eta ebazpena emateko eskumena zein organok duten adieraztea.

h. Eskaerak aurkezteko epealdia.

i. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia.

j. Eskaerari erantsi beharreko agiriak eta informazioak.

k. Hala badagokio, eskaerak berriz egiteko aukera, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen, 25. artikuluan ezarritakoarekin bat (Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen Foru Araua aurrerantzean).

l. Ebazpenak administrazio bidearekin amaitzen duen eta, horrela ez bada, zein organotan jarri behar den gora jotzeko errekurtsoa.

m. Eskaera baloratzeko irizpideak. Objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publizitatea eta diskriminaziorik eza bermatu beharko dute irizpide horiek dirulaguntzak ematerakoan, eta egokia ote den dirulaguntzaren xede den helburua lortzeko jarduera izango da kontuan irizpideok haztatzerakoan, hauexek kontuan hartuta: aurkeztutako proiektuaren edo egindako jardueraren kalitatea, esperientzia edo ibilbidea, berrikuntza, bideragarritasun baldintzak edo,

oro har, dirulaguntzaren helburua lortzeko egoki irizten den eta deialdian jasotzen den edozein alderdi. Horrez gain, Emakume eta gizonen berdintasunerako legearen 20. artikulua arabera, dagokion kasuetan, adjudikatzeko irizpideen artean barne hartuko dira genero ikuspegia diruz lagundutako proiektu edo jardueran integratzeak duen eragina neur dezaketenak.

Halaber, balorazio irizpideak ezartzean, hizkuntzen erabilerak onuradunek antolatutako diruz lagundutako jardueran eragin handia duen ala ez eta nori zuzentzen zaion kontuan hartuko da. Horrenbestez, dagokion kasuetan, hizkuntza tratamendua baloratuko da aurkeztutako proiektuetan.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko dirulaguntzak norgehiagokarik gabe ematen direnean.

n. Noiz eta nola frogatu behar duen dirulaguntza ezarritako xederako erabili duela eta jasotako funtsak behar bezala gastatu dituela.

ñ. Xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (naziokoak, Europar Batasunekoak zein nazioartekoak) emandako dirulaguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Halaber, Arabako Foru Aldundiko beste Sail batzuen edo Diputatu Nagusiaren Sailaren beraren dirulaguntzekin bateragarriak edo bateraezinak diren zehaztuko da deialdian.

o. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzen aldaketaren ondorioz ebazpenak izan ditzakeen aldaketak.

p. Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek erabiliko dira pertsona onuradunak azkenean jasoko duen diru kopurua edo, hala dagokionean, itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko. Irizpide horietan aintzat hartuko da proportzionaltasunaren printzipioa.

q. Hala badagokio, pertsona eskatzaileen konpromisoa, enpresa ez deslokalizatzeko; eta pertsona onuradunak, deslokalizazioan ez erortzeko, bere zerga egoitza noiz arte eduki behar duen Arabako Lurralde Historikoan.

r. Nola jakinarazi edo argitaratuko den deialdia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 41. artikuluan ezartzen duen arabera.

5. Foru Gobernu Kontseiluak abenduaren 27an emandako 57/2019 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko irizpideak onartzekoak, ezarritakoaren arabera (8. ALHAO, 2020ko urtarrilaren 22koa), deialdiaren oinarrietan kontuan hartuko da hizkuntzen erabileraren faktorea esanguratsua den onuradunak antolatutako diruz lagundutako jardueran; baita nori zuzentzen zaion ere. Horrenbestez, bi hizkuntza ofizialei tratamendu egokia emango zaiela bermatzeko beharrezkoak diren hizkuntza irizpideak ezarriko dira deialdiaren oinarrietan.

6. Emakume eta gizonen berdintasunerako Legaren 24. artikulua arabera, administrazio publikoak sustatu beharko du elkarte eta erakunde profesionalen, enpresa, gizarte ekonomia, sindikatu, politika eta kultura arloko erakunde zuzendaritza organoetan gizon eta emakumeen kopuru orekatua egon dadila. Xede horretarako, bestelako jarduketan artean, deialdiek dagozkien dirulaguntzak egokitu ahalko dituzte, emakume gutxiegi dauden zuzendaritza organoetan emakumeen presentzia gehitzea ahalbideratzen duten neurriak hartzearen arabera. Halaber, ezingo zaie eman inolako laguntzarik onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik baztertzen duten elkarte eta erakundeak.

2. Printzipio orokorrak

Ematen diren dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

— Publikotasuna, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.

- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.
- Efizientzia, Diputatu Nagusiaren Sailaren baliabideak ezartzeko eta erabiltzeko orduan.

3. Pertsonen edo erakunde onuradunen baldintza orokorrak

1. Dirulaguntza ematea justifikatzen duen egoeran dauden pertsona fisikoak edo juridikoak edo oinarri arautzaile hauetan eta deialdian ezarritako inguruabarrak betetzen dituztenak izango dira onuradunak. Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauan eta deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Deialdian berariaz hala ezarrita dagoenean, onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarteak, ondasun erkidegoak edota beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juridikorik izan ez arren, baldin eta proiektu, jarduera edo jokabideak burutzeko gauza badira edo dirulaguntza emateko arrazoi den egoeran badaude.

Pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarteak direnean, eta nortasunik ez badute, beren-beregi adierazi beharko dira, bai eskabidean bai diru-laguntza emateko ebazpenean, elkartekide bakoitzak bere gain harturiko konpromisoak, eginkizunak betetzeari dagokionez, baita elkartekide bakoitzari aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa ere, beraiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarria izendatu beharko da, elkarteari pertsona onuraduna den neurrian dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena.

Dirulaguntza eska dezakete, eskaria egiten duten egunean, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 10. eta 12. artikuluetan ezarritako baldintzez gain, honakoak ere betetzen dituzten erakunde edota pertsonak:

- Pertsona juridikoak legez eratuta egotea.
- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea.

2. Hauek ez dira erakunde edo pertsona onuraduntzat joko:

– Laguntza lerro horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzetatik sortutako betebeharrak guztiak bete ez dituztenak.

– Diputatu Nagusiaren Saileko aurrekontuan dirulaguntza nominatiboak dituztenak, baldin eta haien helburua dirulaguntzaren xedearekin bat badator.

– Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 12.2. artikuluan jasotzen diren debekuetako batean erortzen direnak.

– Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren IV. tituluaren jasotzen diren arau hausteenatik zigortzen direnak, zein administrazio bidez edo penalki zigortu direnak, sexuagatik baztertzegatik, dagokion zehapenean ezarritako aldian, emakume eta gizonen berdintasunerako Legeak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakume eta gizonen benetako berdintasunerako (Emakume eta gizonen benetako berdintasunerako Lege Organikoa aurreratzean), eta Emakume eta gizonen berdintasunerako Legeak ezartzen duten moduan.

– Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik baztertzen duten elkarte eta erakundeak, emakume eta gizonen berdintasunerako Legearen 24.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Dirulaguntza eskuratzeko behar diren baldintza bereziak eta horiek egiaztatzeko modua deialdian zehaztuko dira.

4. Dirulaguntza jasotzen duten pertsona eta erakundeek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izan beharko dituzte, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan, Gobernu Kontseiluarenean, ezarritakoaren arabera (23. ALHAO, 1997/02/26koa), Gobernu Kontseiluaren

urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuan idatzitakoari jarraiki (121. ALHAO, 2004/10/18koa). Horrez gain, ezin da erori Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 12.2 artikuluan jasotzen debekuen pean.

4. Aurretik izapidetzea eta urte anitzeko dirulaguntzak

1. Deialdia onartu ahal izango da hura ebatzi behar den aurrekontu ekitaldia hasi baino lehenago, baldin eta laguntza ematea onartzen den urte berean gauzatzen bada gastua, eta honako inguruabar hauetakoren bat betetzen bada:

a) Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan normalean kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematearen ondoriozko gastuaren aurrekontu estaldurarako, edo

b) Kreditu egokia eta nahikoa egotea hurrengo ekitaldiko aurrekontuen proiektuan, zeinean hartuko baita gastu konpromisoa, dirulaguntza ematea onartzen duen ebazpenaren ondorioz.

Deialdian ageri den gehieneko zenbateko osoa, horrelako kasuetan, gutxi gorabeherakoa izango da; beraz, deialdian berariaz jaso beharko da dirulaguntzak emateko baldintza izango dela kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematea ebazten den unean. Azkenik onartutako aurrekontu kreditua hasieran balioetsitako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak onartutako deialdian aplikatu ala ez erabaki ahalko du, ebazpenaren aurretik gastu espedientea izapidetu eta gero, beste deialdi bat onartu behar izan gabe.

2. Era berean, dirulaguntzen deialdia baimendu ahalko da, baldin eta laguntzak emateko ebazpenari dagokion ekitaldiaren ondokoetan egotz daitekeen gastua badu. Kasu horretan, deialdian emango den gehieneko zenbatekoa adierazi beharko da, guztira, urterokoetan banatuta, emango diren dirulaguntzen ondoriozko gastua egitea aurreikusten den unea kontuan hartuta.

5. Eskabideak nola aurkeztu eta horretarako epea

1. Deialdian adierazten den moduan aurkeztuko dira eskaerak. Aurkezteko modu hauek izan daitezke:

a) Pertsona fisikoek bi aukera hauek dituzte eskaerak aurkezteko:

– Bertaratuta: eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 16.4. artikuluan ezarritako organo, establezimendu edo bulegoetan aurkeztuko dira.

– Internetez: eskaerak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartuz aurkeztuko dira, bere erregistro elektronikoen bidez, edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 16.4. artikuluan ezarritako organoen erregistro elektronikoetan.

Eskaera izapidetzean eta agiriren bat ekartzean kanal bat erabiltzeak, zuzenean edo online, ez du ekartzen prozeduraren geroagoko izapideetan berriro erabili behar izatea. Online jakinarazten diren edo ez aukeratu ahalko da beti, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko artikularen 14.1. artikulua ezarritakoaren arabera.

Deialdiak berariazko eskaera ereduak ezartzen baditu, nahitaez erabili beharko dira, eta bai zuzenean, bai online, aurkeztu ahalko dira, deialdian berariaz adierazitako helbide elektronikoaren bidez.

b) Pertsona juridikoak edo online aurkeztu behar dutenak: eskaerak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartuz aurkeztuko dira, bere erregistro elektronikoen bidez, edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 16.4. artikuluan ezarritako organoen erregistro elektronikoetan. Hala ere, dirulaguntzen deialdiak ezartzen badu berariazko inprimaki elektronikoak erabiltzea, nahitaez erabili beharko dira, eta eskaera deialdiak berak adierazten duen helbide elektronikoaren bidez beteko da.

2. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztutakoa izango da eta ezingo da izan hamabost egun baliodun baino gutxiagokoa, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3. Eskaerak, hala, ez badituzte betetzen adierazitako baldintza horiek, Diputatu Nagusiaren Sailak erakunde eta pertsona interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

Izapideak nahitaez online egin behar dituzten pertsonak bertaratuz egiten badute, online egitea eskatuko zaie. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

4. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoean ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

6. Dokumentazioa

1. Interesdunei ez zaie eskatuko jatorrizko agiriak aurkezteko, salbuespen gisa eta justifikatuta, jatorrizko agiria aurkeztea beharrezkoa bada izan ezik, betiere instrukzio zerbitzuak agiriaren autentikotasuna eta jatorrizkoaren izaera egiazta dezan.

Jatorrizko agiriak paperez aurkezten badira, instrukzio zerbitzuak agiriaren benetako kopia elektronikoa egin beharko du, agiriaren autentikotasuna egiaztatutakoan, administrazio espedientean sartzeko. Horrela, interesdunari jatorrizko agiria itzuliko dio.

Interesdunak administrazio prozeduran aurkezten dituzten kopiek, bai paperezkoek, bai elektronikoez, dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik balioko dute. Halaber, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 28.7. artikulua arabera, aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzule bakarra onuraduna da. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren beste jarduketak egin ditzake egiaztatutako gertaeren eta aurkeztutako agirien egiazkotasuna egiaztatzeko. Bestalde, interesdunek, xede horietarako Arabako Foru Aldundiak eskatzen dizkien beste agiriak jarriko dituzte haren eskura.

2. Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzakoei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 21.3. artikulua ezartzen duen moduan, onuradunak eskaera aurkeztean, zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egin beharreko ziurtagiriak biltzeko baimena emango dio kudeaketa organoari.

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 28.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek Arabako Foru Aldundiak jadanik dituen edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez aurkezteko eskubidea dute. Horrenbestez, administrazioak agiri horiek kontsultatu edo bil ditzake, eskatzaileek egiaztatze hori egitea uzten ez badute izan ezik. Kasu horretan, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu agiriak.

Halaber, aurretik edozein administrazioari aurkeztutako agiririk ez zaie eskatuko interesdunei. Xede horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zein administrazio organori aurkeztu zizkion agiri horiek. Horrela, interesdunak prozeduran kontrakoa adierazten ez badu salbu, edo aplikatzeko lege bereziak berariazko baimena eskatu ezean, instrukzio organoak bildu beharko ditu.

Salbuespen gisa, instrukzio organoak ezin baditu bildu aurreko ataletan aipatutako agiriak, interesdunari berriro aurkeztea eskatu ahalko dio.

7. Eskumeneko organoak eta balorazio batzordea

1. Prozedura izapidetzeko organo eskumenduna izango da deialdian adierazten den Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Saileko unitate organikoa.

2. Eskaerak deialdia sustatzen duen zuzendaritzako titularra buru den balioespen batzorde batek aztertuko ditu. Batzorde horretako kideak izango dira dirulaguntza kudeatzen duen unitate organikoaren buruzagitzako titularra, eta zuzendaritza horretako bi teknikari.

Idazkari Tekniko eta Herritarren Arretarako burua izango da idazkaria. Hitza izango du, baina botorik ez.

Balioespen Batzordea eratzeko orduan, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzko Legeak bere 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

3. Diputatu Nagusiaren Sailak, egokitzen jotzen dituen kasuetan, aurkeztutako agiriari buruzko datuak edo argibideak eskatu ahalko ditu, eta administrazio publikoen administrazio prozedura erkideei buruzko legeak ezartzen dituen epeen barruan ez badira ematen, espedientea atzera lezakete; baita artxibatzea ekarri ere.

4. Prozedura norgehiagoka bidezkoa bada, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du; bertan ebaluazioaren emaitza zehaztuko du eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

Organo izapidetzaileak, espedientea eta balorazio batzordearen txostena ikusirik, behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, behar den bezala arrazoitua.

5. Norgehiagokarik gabeko prozeduran, instrukzio organoak proposamena igorriko dio, behar bezala arrazoituta, ebazteko eskumena duen organoari.

6. Entzunaldiaren izapidea egin beharrik ez da izango baldin eta prozeduran erakunde interesdunak aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta horiek baino ez badira kontuan hartzen ebazpena emateko; horrelakoetan, ebazpena behin betikoa izango da.

8. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena eman eta jakinaraziko du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan ebazpen espresik ematen ez bada, erakunde interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

2. Dirulaguntza jasoko duten eskatzaileez eta gainerako eskaera guztien esanbidezko ezezpenez gain, eskaera guztien zerrenda jaso ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpenak; hau da, oinarri arautzaileek pertsona edo erakunde onuradun izateko ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, deialdiak jasotako kredituaren gehienezko kopurua gainditzeagatik onartu ez diren eskaera guztien zerrenda jaso ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpenak, eskaera bakoitzari zenbat puntu eman zaion adierazita, deialdiak jasotako balorazio irizpideen arabera.

Kasu horretan, pertsona edo erakunde onuradunen batek uko egiten badiu dirulaguntzari, organo eskudunak erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, dirulaguntza esleitzea puntuazio hurrenkeran hurrengo dagoen eskatzaileari edo eskatzaileei, baldin eta, betiere, onuradunetako baten ukoarekin, behar beste kreditu liberatzen bada gutxienez ezetsitako eskabideetako bati erantzuteko.

3. Ebazpenean, positiboa izanez gero, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko dokumentazioa, zenbatekoa emateko baldintzak, eta gainerako eskaerak berariaz ukatzen dituela.

4. Pertsona edo erakunde eskatzaileei dirulaguntza eman edo ukatu egin zaien adierazten duen ebatzia idatziz jakinaraziko zaie. Hala ere, banaka jakinarazi ordez, deialdia argitara daiteke, berariaz adierazten den baliabidearen bidez, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko legearen 45.1.b. artikulua ezarritakoaren arabera. Argitalpen hori jakinarazpentzat hartuko da.

5. Zuzenean izapidetzen bada, banakako jakinarazpenak egiteko, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko legearen (APAPEL) 42. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Hala ere, indarreko araudiak baliabide elektronikoen bidez jakinaraztera behartzen ez dituen pertsonak, baliabide elektroniko horiek aukera ditzakete, paperez jakinarazi beharrean, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren "Nire jakinarazpenak" atalean dagoen harpidetza zerbitzuaren bidez. Jakinarazpena paperez egiten bada, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ere jarriko da interesdunen eskura, borondatez sar dadin eduki horretara.

6. Online izapidetzen bada, banakako jakinarazpenak egiteko, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko legearen (APAPEL) 43. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Jakinarazpena egindakotzat hartuko da interesduna, edo behar bezala identifikatutako haren ordezkaria, edukira sartutakoan, eta ukatutzat hartuko da, jakinarazpena eskura jarri eta hamar egun natural igarotakoan, interesduna edo behar bezala baimendutako bere ordezkaria edukira ez bada sartzen.

APAPELen 43.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren, Gobernu Kontseiluarenaren, bigarren xedapen gehigarrian (Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortzea onartu zuen) ezarritakoari jarraiki, Foru Gobernu Kontseiluak urtarrilaren 21ean ezarritako 4/2020 Foru Dekretuan emandako idazketan, jakinarazpen elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egingo dira. Hartzaileak egoitza elektroniko horren "Nire jakinarazpenak" atalean sar daitezke hara.

Jakinarazpen elektronikoaren eskura jartzearekin batera, abisu bat bidaliko zaio interesdunari, hark aukeratu duen baliabidearen bidez.

7. Online nahitaez izapidetu behar ez duten pertsona fisikoek, jakinarazpenetarako helbide bat adierazi beharko dute eskaeran. Horrez gain, gailu elektroniko edota helbide elektroniko bat ere adieraz dezake, egoitza elektronikoan bere eskura jartzen diren jakinarazpenei buruzko oharra bidaltzeko. Online izapidetu behar duten pertsona juridikoek baliabide elektronikoaren bidez bakarrik jasoko dute jakinarazpena, eta gailu elektroniko edota helbide elektroniko bat ere adieraz dezakete egoitza elektronikoan jakinarazpenak eskura jartzeari buruzko abisuak bidaltzeko.

8. Jakinarazpena egiteko erabiltzen den modua edozein dela, oro har jakinarazteko, eta gardentasunaren inguruko betebeharrak betetzeko, ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiaren gardentasunaren atarian argitaratuko dira emandako dirulaguntzak. Horrez gain, zenbatekoa, xedea, helburua eta onuradunak ere adieraziko dira.

9. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Hori egiteko bi hilabeteko epealdia egongo da ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Halaber, hilabeteko epean, eman zuen organo berean, aukeratuko berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal du, APAPELen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Berraztertze errekurtsua jartzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta berariaz ebatzi arte edo jarritako berraztertze errekurtsoren presuntziozko ezepena gertatu arte.

9. Dirulaguntzaren zenbatekoa edo zenbatekoa zehazteko irizpideak

1. Deialdietan dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, gehieneko zenbateko osoa eta aurrekontuko saila ezarriko dira, dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta.

Zuzendaritza batean diruz lagun daitezkeen lerro bakoitzean sor daitezkeen soberakinak zuzendaritza horren beste edozein lerrotan handi daitezke ekitaldi berean, beste deialdi bat egin behar izan gabe. Xede horietarako, deialdiak berariaz jaso beharko du soberakina baliozkoa

izango dela kredituaren erabilgarritasuna aitortzen bada, aurretik adierazitako inguruabarren ondorioz, eta hala badagokio, aurrekontuaren aldaketa onartu beharko da aldez aurretik, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

2. Ez badago modurik banakako zenbatekoa zehazteko, deialdian horretarako irizpide objektiboak ezarriko dira, eta behar izanez gero, dirulaguntzen haztapenerako irizpideak ere bai, haien xedea kontuan hartuta. Irizpideetako bat nahitaez izan behar da aurrekontuan dirua baliagarri egotea.

3. Eskaeren zenbatekoaren bolumena dirulaguntzarako gorde den gehieneko zenbatekoa baino nabarmen handiagoa bada, deialdiak onuradunen artean hainbanatzeko aukera emango du, salbuespenez eta ezarritako betekizunetan gorabeherarik eragiten ez bada, pertsona edo erakunde onuradunek eskatutakoaren eta dirulaguntzarako gehieneko kopuruaren arteko aldearen portzentajea.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko batzuek edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

5. Laguntzen eraginkortasuna bermatze aldera, deialdi bakoitzean finkatu ahal izango da diruz lagundu daitekeen proiektu edo jarduketa bakoitzeko eman beharko den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, bai eta proiektu eta jarduketek dirulaguntza jaso ahal izan dezaten, izan behar duen gutxieneko zenbatekoa ere.

6. Dirulaguntzak ahalik eta erakunde onuradun gehieni iristeko, deialdi bakoitzean aurrekontu jarduera edo gastu jakinetarako mugak ezarri ahalko ditu muga horiek laguntzen eraginkortasunari eragiten ez badiote.

7. Salbuespenez, dirulaguntzaren helburuagatik edo izaeragatik ezinezkoa bada prozedura norgehiagokaren bidez izapidetzea, oinarri arautzaileetan beren-beregi agerraraziko da norgehiagokarik gabe izapidetuko dela dirulaguntzak emateko prozedura, eta, beraz, eskabideak jaso ahala banatuko direla funtsak –baldin eta eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte–, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

10. Dirulaguntzaren eragina jasaten duten gastuak eta bateragarritasuna

1. Oinarri hauek araututako dirulaguntzak egindako gastuetarako izango dira, baldin eta dirulaguntzaren xede den proiektua garatzeko egin badira, eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak ezarriko dira deialdi bakoitzean.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko da argi eta garbi diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diona, guztiz beharrezkoa dena eta deialdietan ezarritako epean egiten dena.

2. Ondoko gastuak ez dira, inola ere, diruz lagungarriak izango:

- a) Bankuko kontuen korritu zordunak.
- b) Interesak, errekareruak eta administrazio eta zigor zehapenak.
- c) Prozedura judizialako gastuak.

3. Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 29.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, egindako gastutzat hartuko da justifikatzeko aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena, deialdiaren oinarrietan kontrakoa berariaz ezartzen ez bada salbu.

4. Zergak diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, dirulaguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak egiaz ordaintzen dituenen. Ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko zeharkako zergak, baldin eta berreskuratutako edo konpentsatu ahal badira, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

5. Dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta, deialdi bakoitza arautzen duten oinarriek dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek egindako zeharkako gastuen ehuneko bat ezarri ahal izango dute eta berori diruz lagundu daitekeela ulertuko da, justifikatu behar izanik gabe, betiere kostu horiek jarduera benetan gauzatzen den aldiari dagozkion neurrian.

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko batzuek edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

7. Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko Foru Arauko 29.3. artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditzen baditu azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuak, kontratu txikietarako ezarritako kopuruak, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu baino lehenago, salbu eta haren ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago nahiko entitate hori egin, eman edo hornitzen duenik, edo gastua dirulaguntza baino lehenago egin bada. Aurkeztutako hiru eskaintzak dirulaguntzaren frogagirietan edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran azaldu beharko dira. Horien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeraturako eskaintza diru aldetik onena ez denean, egindako aukera berariaz arrazoitu beharko da memoria batean.

11. Azpikontratatzea

Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 27. artikulua arabera, onuradunak azpikontratatu duela esango da dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo partzialki hirugarrenekin gauzatzea hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da pertsona onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Xede horietarako, utzitako gehieneko azpikontratazio ehuneko adierazi beharko du deialdiak. Ez bada portzentajerik zehaztu, pertsona onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 50 azpikontratatu ahal izango du, gehienez.

Dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua gehitu arren haren edukiari balioa eransten ez dioten jarduerak ezin izango dira azpikontratatu.

Hirugarrenekin kontratatutakoaren zenbatekoa dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20tik gorakoa bada eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiago bada, azpikontratazioak betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Dirulaguntza eman duen erakundeak kontratua egiteko baimena ematea alde aurretik, deialdian zehazten den moduan.

Kontratuak ezingo dira zatitu euren zenbatekoa murrizteko, aurreko idatz zatian ezarritako betekizunak saihesteko asmoz.

Kontratistek pertsona onuradunarekikoak baino ez dituzte bete behar izango, eta Administrazioaren aurrean pertsona onuradunak hartuko du bere gain diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa.

Aurreko atalean jasotakoa betetzeko, pertsona onuradunei dagokie dirulaguntza jasoko duen jarduera gauzatzeko hirugarrenekin zerbait adostuz gero, oinarri orokor hauetan eta deialdian ezartzen diren mugak errespetatzea ziurtatzea, diruz laguntzeko modukoak diren gastuen zenbatekoari eta izaerari dagokienez; kontratistek lankidetzara betebeharra bete behar dute, muga horiek benetan errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatzeak aukera emateko.

Pertsona onuradunak inola ere ezingo du hitzartu diruz lagundutako jarduera osoa edo zati bat honako hauekin:

a) Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikuluan jasotzen diren debekuetako batean erortzen diren pertsona edo erakundeak.

b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo entitateekin.

c) Bitartekari edo aholkulariekin, horientzako ordainketak eragiketaren guztizko kostuaren ehuneko gisa zehazten badira, salbu eta ordainketa hori justifikatuta dagoenean egindako lanaren edo emandako zerbitzuen merkatuko balioa erreferentziazat hartuta.

d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateen bidez, non eta ez diren inguruabar hauek agitzen:

1. Kontratazioa merkatuaren baldintza arrunten arabera egitea.

2. Aldez aurretik organo emailearen baimena jasotzea, deialdiaren oinarrietan ezarritako moduan.

e) Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu duten pertsona edo entitateekin, baldintzak ez betetzeagatik edo balorazio nahikoa ez lortzeagatik dirulaguntzarik jaso ez badute.

12. Ordainketak

Dirulaguntza ordaindu aurretik, pertsona edo erakunde onuradunak frogatu egin beharko du dirulaguntzaren xede den jarduera edo proiektua egin, helburua lortu edo jokabidea hartu duela, dirulaguntzaren oinarrietan ezarritako moduan.

Deialdian jaso daiteke aukera egongo dela aldez aurretik edo kontura ordaintzeko, foru arauan ezarritakoaren arabera.

Deialdiek konturako ordainketak edo ordainketa aurreratuak egiteko aukera jasotzen badute, haien baldintzak eta mugak, eta hala badagokie, bermeen araubidea finkatuko dira.

Ezin izango da dirulaguntza ordaindu, harik eta pertsona edo erakunde onuraduna bere zerga eginbeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko eginbeharretan egunean egon ez arte, edo itzulketagatiko zorra ordaindu arte.

Onartutako diru-laguntza berrikusi egingo da, beste erakunde batzuen laguntzen ekarpen osagarrien bidez eta, hala badagokio, beste diru-sarrera batzuen bidez gastuaren finantzaketa ezagutu ondoren.

13. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatutako edozein aldaketak, eta edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk lortzeak, emateko ebazpena aldatzea ekar dezakete, baita partzialki itzuli behar izatea ere.

Ebazpena emanda, onuradunak edukia aldatzea eska dezake, horren arrazoiak azalduz. Horrela, hirugarrenen eskubideei ez badie kalterik egiten, eta deialdian ezarritako inguruabarrak gertatzen badira. Xede horietarako, deialdian ezarriko dira dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzen aldaketaren ondorioz ebazpenak izan ditzakeen aldaketak. Eskaera jarduera egiteko epea amaitu aurretik egin beharko da.

Deialdian, gauzatzeko behin betiko aurrekontuaren gastu kontzeptuetan gertatzen diren desbideratzeak ere zehaztuko dira, instrukzio organoaren adostasuna bakarrik eskatzen duen onartutako aurrekontuarekin alderatuz. Aldaketa horiek justifikatuta egon beharko dute, eta ez dute ekarriko inola ere proiektuaren aldaketa nabarmenik. Bestalde, diruz lagundutako gastuen aldean ezarritakoa bete beharko dute.

Halaber, dirulaguntza ematen duen organoak, proiektua gauzatzeko epea luzatzeko, edo justifikazioa aurkezteko ezarritako epea handitzeko aukera eman dezake, epe horien erdia ez badu gainditzen, eta betiere hirugarrenen eskubideak ez badira kaltetzen.

14. Justifikazioa

1. Dirulaguntzen onuradunek, deialdi bakoitzean adieraziko den epean, ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta dirulaguntza ematean ezarritako helburuak bete dituztela justifikatu beharko diote instrukzio organoari.

2. Oro har, pertsona edo erakunde onuradunak egindako justifikazioa justifikazio kontutzat hartuko da, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudia onartzen duenaren, 72. artikuluan aipatzen diren gastuen egiaztagiriak aurkeztuz.

a. Diruz lagundutako jarduerak eragindako gastuak zurituko dituzte, behar bezala zerrendatuta. Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartutako zenbateko osoa adina diruz lagundutakoek, sortutako gastuen eta sarreren fakturak edo frogatzeko balio duten gainerako agiriak, merkataritzako arlo juridikoan baliokideak direnak edo administrazioaren eragina dutenak aurkeztuko dituzte.

Egindako gastua zer mugatetik aurrera egiaztatu beharko den ezarriko da deialdian.

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten ordainagiri edota fakturak:

- Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZA.
- Hartzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZA.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Era berean, PFEZen (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko zerga araudia betetzen ez duten fakturak eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuen frogagiri gisa, fakturatzeko betebeharren arloko arautegia kontuan hartuz.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren pertsona edo erakunde onuraduna.
- Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Kontu korronteen libretak, dagozkien mugimenduekin, bankuaren zigilu estanpatuarekin.
- Posta elektronikoz jasotako banku-laburpen elektronikoak edo ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilu estanpatua duten transferentzia telematikoen aginduak.
- Erosketa tiketak, ordaindutakoan eskuratzen diren horietakoak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaiak txartelak eta abar), edo fakturak, enpresa emaileak ordainduta daudela adierazteko jarritako zigiluarekin.

Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketen zenbatekoa, baldin eta ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabalioa atzerriko

monetan. Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

b. Faktura egiten ez diren gastuei dagokienez, gastua egiaztatze baliorekin duten agiriak, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

c. Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

d. Diruz lagundutako jarduera edo jardueren txostena, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak, eta esku-hartzearen esparruan, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko egindako berariazko jarduera edo jarduketak adieraziz, baldin baleude. Diruz lagundutako jardueran pertsonak parte hartzen badute, sistematikoki sexuaren aldagaia barne hartu beharko da txostenean emandako informazioan. Horrela, datuak bereizita emango dira, emakume eta gizonen partaidetzan dauden aldeak ikusi ahal izateko. Bestalde, ahal den neurrian, datu horiek azalduko dira, emakume eta gizonen berdintasunerako Legearen 16. artikulua, eta emakume eta gizonen benetako berdintasunerako Lege Organikoaren 20. artikulua, arautzen duten moduan. Horrenbestez, memorian jasoko dira diruz lagundutako prestazioaren erabiltzaile edo onuradunen kopurua eta diruz lagundutako proiektua gauzatu duen langilearen datuak, sexuaren inguruko xehetasunekin, baita deialdi bakoitzean zehazten diren beste aldagai batzuen inguruko xehetasunekin, salbu eta aparteko kasuetan, hau da, garatutako proiektuaren izaera dela eta, datu horiek eskuratzea ezinezkoa bada.

Txostenean, diruz lagundutako jarduera eta gertaera herritarrei zuzentzen bazaie, onuradunek zer hizkuntzatan egin den adierazi beharko dute; baita deialdian hizkuntza ofizialen erabileraren inguruan ezarri diren betebeharrak bete dituen ala ez ere.

Egongo balira, diruz lagundutako jardueraren agiri grafikoak, argazkiak edo ikus-entzunezkoak (programak, iragarki kartelak, liburuxkak, argazkia, bideoak...). Agiri horrietan, hizkuntzaren eta irudien berdintasuneko erabilera eta erabilera ez sexista jasoko da. Bestalde, liburuxkak, kartelak edo bestelako euskarriak erabiltzen dituztenek jarduera herritarrei zabaltzeko, material horren aleak bidali beharko dituzte, bi hizkuntza ofizialetan.

Dena den, Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Saileko irudi korporatiboa egoki erabili beharko dute.

e. Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko foru arauaren 29.3. artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar dituen hiru aurrekontuak, edo hala badagokio, hiru aurrekontuak eskatzeko ezintasunaren justifikazioa.

f. Gastuen zerrendan sartutako kostu orokorrak edota zeharkakoak banatzeko irizpideen adierazpena, hala badagokio, a) atalean aipatutakoari jarraiki, salbu eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan oroharreko konpentsazioa aurreikusita bada, justifikatzeko beharrezanik gabe.

g. Hala behar denean, aplikatu ez diren geldikinak eta horietatik sortutako interesak itzultzeko ordainketa gutuna.

3. 60.000 eurotik beherako dirulaguntzetarako, justifikazioa justifikazio kontu sinplifikatua aurkeztuta egiteko ezarriko ahalko du deialdiak, dirulaguntzei buruzko Araudi orokorreko 75. artikuluan araututako eran.

Honela osatuko da justifikazio kontu erraztua:

1) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen txostena, burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita.

2) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan hartzekoduna den pertsona fisiko edo juridikoa, gastuen agiria edo ordainagiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data identifikatu behar dira. Deialdi bakoitzaren oinarriek ezar dezakete zer zenbatekotatik aurrera aurkeztu beharko diren fakturak edo horien baliokideak

diren agiriak, eta haien ordainketaren frogagiriak. Zenbateko hori, banakako zenbatekoa edo gastuen kontzeptu beragatiko zenbatekoa izan daiteke.

3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4) Hala behar denean, aplikatu ez diren geldikinak eta horietatik sortutako interesak itzultzeko ordainketa gutuna.

Instrukzio organoak nahi dituen justifikazio guztiak egiaztatu ahal izango ditu deialdian ezartzen diren laginketa tekniken bitartez, dirulaguntza behar bezala aplikatu den argitzeko. Horretarako, hautatzen dituen gastu frogagiriak aurkezteko eskatu ahal izango die onuradunei.

4. Diruz lagundu daitekeen jardueraren xedea unitate fisikoen edo beste parametro batzuen arabera neur daitezkeen jarduerak egiaztatzea bada, moduluka justifikatu ahal izango dira gastuak, salbuespenez, dirulaguntza eman izanaren arrazoiak modu frogagarrian egiaztatuta, eta hala badagokio, dirulaguntzaren justifikazioa dirulaguntzaren xedeari aplikatuko zaio.

Dirulaguntza justifikatzeko, jardueraren memoria eta memoria ekonomikoa aurkeztuko dira, dirulaguntzei buruzko Araudi orokorreko 78.2 artikuluan aurreikusitako edukia jasota.

5. Dirulaguntzak justifikatzeko, faktura elektronikoen erabilera onartuko da, betiere fakturazio betebeharren esparruan araudian ezarritako baldintzak betetzen badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen arautegia edo aplikatzekoa den arautegia onartzen dituen). Horrenbestez, faktura elektronikorik horiek irakurterrazak izan beharko dute, eta fakturaren edukiaren jatorriaren autentikotasuna eta osotasuna bermatuko dute, mekanismo hauetako batzuen bidez:

– Sinadura elektronikoa aurreratua, aitortutako ziurtagiri baten bidez, eta sinadurak sortzeko gailu aseguru baten bidez sortutakoa, edo ezaguna den ziurtagiri batean.

– EDI datuen truke elektronikoen bidez.

– Interesdunek jakinarazi eta Zerga Administrazioak onzat emandako beste baliabide batzuk erabiliz.

– Subjektu pasiboaren enpresa jardueraren edo jarduera profesionalaren ohiko kudeaketa kontrolen bidez, betiere auditoretzarako bide fidagarria ezartzen da, hau da, fakturaren eta bertan dokumentatzen den ondasun ematearen edo zerbitzugintzaren arteko lotura finkatzeko modukoa.

6. Elektronikoki sinatutako beste edozein dokumentu aurkeztuz gero, sinadura onartuko da konfiantzazko zerbitzu elektronikoa ematen dituzten erakunde kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriaren bidez (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

7. Hala ere, alderdi honi dagokionez, eta garapenerako nazioarteko lankidetzaren deialdien kasuan, eskatutako dokumentazioa deialdi bakoitzean zehaztuko da.

8. Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 14.1.d) eta 30. artikuluetan ezarritakoaren arabera, erakunde onuraduna, eskumeneko organoak egin dezakeen funtsen kudeaketa egiaztatzeko jarduketan mendean geratzen da. Horrez gain, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta eskumeneko kontrol organoek bestelako jarduketak ere ezar ditzakete egiaztapen eta finantzak kontrolatzeko lanak egiteko. Horrela, aurreko jarduketek baliatu, eskatzen dieten informazioa eman beharko dute.

9. Adierazitako epealdian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, ordainketa kredituak baliogabetuko dira, eta "konturako ordainketa" moduan jasotako diru kopuruak itzultzeko espedientea abiaraziko da.

15. Diru-laguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Edozein administrazio nahiz erakunde publikotatik zein entitate pribatutatik, nazionala nahiz nazioartekoa dela, beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta horien zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jarduera baino handiagoa edo, bestela, diruz lagundutako jarduera aurrera ateratzeko eskatutako finantzaketaren murrizketa badakar.

Onartutako diru-laguntza berrikusi egingo da, beste erakunde batzuen laguntzen ekarpen osagarrien bidez eta, hala badagokio, beste diru-sarrera batzuen bidez gastuaren finantzaketa ezagutu ondoren.

16. Diputatu Nagusiaren Sailaren babesa

Dirulaguntzen onuradunek hitzematzen dute argi ezarriko dutela, programetan, iragarki kar-teletan, argazkietan eta gainerako material grafikoan, bai idatzizkoetan, bai soinudunetan, zein euskarri edo plataforma digitaletan, diruz lagundutako programa edo jardueraren ondorioz argitara dezakeenean, Arabako Foru Aldundiaren babesaren berariazko aipamena. Agiri ho-rietan, hizkuntzaren eta irudien berdintasunezko erabilera eta erabilera ez sexista jasoko da.

Herritarrei jarduera helarazteko liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak erabiltzen dituz-tenek, bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dute material hori. Halaber, dirulaguntzaren xedea jarduera irekia bada, edo ekitaldi publiko bat antolatzea, bi hizkuntza ofizialetan eman beharko da horren berri. Dena den, Aldundiak diruz lagundutako jarduera edo ekitaldietan euskararen erabilera bermatu beharko da, gutxienez, aurkezpen eta agurretan. Lehendabizi, euskaraz egingo da, eta gero, gaztelaniaz.

17. Diru-laguntza itzultzea

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzko Foru Arauan ezarritako kasuetan.

Onetsitako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, bere II. tituluko I. kapituluan aurreikusten duenarekin bat etorritz egingo da.

18. Egiatzapena

Dirulaguntza kudeatzen dituen unitate organikoaren ekimenez egiten diren dirulaguntzen deialdiak garatzeko bidezkoztat jotzen diren ebazpenak emango ditu. Gainera, onuradunek emandako datuak egiazkoak direnez eta oinarri hauetan ezartzen dena betetzen dutenez egiaztatzeko eta horretara behartzeko behar diren egintzak abiarazi ahal izango ditu.

Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute gauzatzen dituzten jarduerekin zeri-kusia duten datuak eta agiriak emateko, Diputatu Nagusiaren Sailak eskatzen badizkie. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

19. Erantzukizunak

Onuradunek beren gain hartzen dituzte programa edota jarduera egitetik sor litezkeen erantzukizunak, eta indarrean dagoen legeriak haiek gauzatzeko ezartzen dituen baimenak eskatu beharko dituzte.

20. Interpretazioa

Aldundi honetako Diputatu Nagusiaren Sailak ebatziko ditu oinarri hauek interpretatzean sor daitezkeen zalantzak.

21. Baliabideak

Oinarri hauen eta ekartzen dituzten administrazio egintzen aurkako errekurtoa aurkez daiteke, APAPELek ezarritako kasuetan eta moduan.

22. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, xedapen hauei jarraituko zaie: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko diru laguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru laguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak jasotako diru laguntzen arautegia onartzen duena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearena; aurrekontu antolamenduari buruzko indarreko foru araua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Legebiltzarrarena, emakume eta gizonen berdintasunerakoa; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen benetako berdintasunerakoa, eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

23. Indarrean jartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.